



**LOUHOSOA**  
**—LUHUSO—**

2020ko abenduaren 17ko

Bilkura agiria

Legeak dioen bezala deitutako Herriko kontseilua Herriko Etxeko gelan bildu da 19:30ean Luhusoko lehen auzapezordea den IRIART-BONNECAZE anderearen lehendakaritza pean.

**Hor zirenak (12):**

DUCLOS Bernadette, HAPETTE Maylis, HIRIART Alain, IRIART BONNECAZE Carole, LARRALDE Ximun, MEMBREDE Mathieu, MONGABURE Vincent, OTHABURU Sébastien, ROUX Christine, SAPPARRART Bertrand, URRUTY Chantal, VALLET Christophe: Zinegotziak.

**Etorriko ez zirela jakinarazi zutenak (3):** HARRIET Jean Pierre, SAINT ESTEBEN Marie, SAINT PIERRE Marie Claire

Idazkaria: DUCLOS Bernadette

**2020ko OTSAILAREN 1ean ERABAKITAKO IPAR EUSKAL HERRIKO BIZITEGIEN TOKIKO PROGRAMAREN PROIEKTUARI BURUZKO IRITZIA**

Andere auzapezordeak oroitarazten du, 2020ko otsailaren 1aren erabakiaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluak 2020-2025 Ipar Euskal Herriko Bizitegien Tokiko Programa finkatu duela eta hitzartzearen ondorioak atera dituela.

Etxegintzaren eta bizitegiaren kodeko R 302-9 artikularen neurrien arabera, elkargokide diren herriko kontseiluek iritzia agertu behar dute BTParen proiektuari buruz, bi hilabeteko epean, programa jakinarazi eta. Hau egin gabe, iritzia proiektuaren alde dela kontsideratuko litzateke.

Bizitegien Tokiko Programak elkargoko lurralde mailako bizitegiaren politika finkatzeko eta plantan ezartzeko tresna izaten da 6 urterendako. Lurraldeko gaurko eta etorkizuneko biztanleriaren bizileku eta ostatatze beharrei erantzuteko xedea du, baita herrien arteko eta herri bereko auzoen arteko bizileku eskaintzaren banaketa orekatua eta anitza bermatzeko xedea ere.

Ipar Euskal Herriaren mailako lehen BTParen apailatze hau lurraldetik ahal bezain hurbil pentsatua izan da, auzapezekin eta bizitegiaren arloko tokiko eragileekin koerakuntzan, lurralde partekatu baten egiazko proiektu bat eramateko. Hori dela eta, informazio gutun bat bidalia izan zaie 158 auzapezei 2018ko uztailan eta gune bakoitzak gobernantza instantzien eta lurralde bakoitzaren arteko lotura egiteko enbaxadore bat izendatu du, berez gidaritza batzordearen kide izaten dena.

BTP proiektu honen eraikuntza lurraldeko hautetsiekin eramana izan da, guneka bildu diren herriekin egindako bilkura batzuei esker, dokumentua apailatzeko hiru urratsetan, gune trinkoko herriekin eta zentralitate funtzioa duten herriekin egindako alde biko elkarriketei esker, hiru gidaritza batzordeei esker, horietako bat LuKAEP eta HMP delakoekin gurutzatua, norabideak eta helburuak finkatzeko denboran.

BTP proiektua hiru zatitan egituratua da.

**Diagnostikoa (I. zatia):** bizitegien ibileraren eta tokiko merkatuaren emaitzek eta azterketa batek osatzen dute, baita lurraldeko bizitegien baldintzek ere.

Diagnostiko honek ondoko emaitzak agertzen ditu:

- lurraldearen erakargarritasunari lotutako demografia dinamika handia eta iraunkorra;

- egoera gorabeheratsuak eremuen arabera: tentsio handipean den itsasbazterra, presiopean den gibel-itsasbazterra eta tokiko garapen baten bila dabilzan barnealdeko beste eremu batzuk;
- lurzoru ekoizpen eskasa antolaketa publikoaren arloan eta lur prezioen emendatze handia itsasbazterrean eta gero eta handiagoa gibel-itsasbazterrean;
- tokiko jendetzaren zati gero eta handiagoa baztertzen duen jabe izateko eta alokatze libreko higiezin merkatua;
- alokatze eskaintza soziala franko apala, nahiz eta emendatze handi bat izan berriki;
- bakarrik bizi direnei zuzendutako bizitegi ttipien eskasa;
- hutsik diren eraikin handiak zaharberritzeko jomugak Ipar Euskal Herri barnealdean;
- energia jaleak diren bizitegietan bizi diren jabe xumeen tasa handia;
- jendetzaren zahartzea, hurrengo urteetan emendatuko den 75 urte baino gehiagokoen parte batekin;
- egungo egunean, beribila erabiltzea baino nahikoa den hautabidea osatzen ez duen garraio publikoaren eskaintza;
- gune nagusi batek egituratutako ekonomia dinamiko bat, Euskal kostaldea - Aturri, enpleguen erdia baino gehiago eta bigarren mailako guneak biltzen dituelarik, baita barnealdean ahul diren guneak ere.

Lurraldeak kontrastatua badirudi ere, orokorki presio handi baten pean izaten da bere erakargarritasun handia kontuan hartuz, eta ondorioz, "selektiboa", batez ere tokiko jendetzarentzat.

Egoera akta honek esku hartze publikoaren emendatze bat eskatzen du, lurzoru-jabetasunaren arloan elkargoen ekintza ahalmena atxikitze eta bizitegien ekoizpenak tokiko jendetzaren beharrei erantzun diezaien segurtatzeko.

### **BTParen norabideak eta helburuak (II. zatia)**

Bizitegi, klima eta mugikortasun plan guzietan 6 norabideetatik abiatuz:

- beste garapen bat antolatzea,
- karbono gutiko lurralde baten alde engaiatzea,
- tokiko beharrei lehentasuna ematea,
- hurbileko muinak azkartzea,
- lurralde inklusibo baten alde aritzea,
- gure helburuak erdiesteko mobilizatzea,

BTPak berak bereziak zaizkion 4 norabide estrategiko dauzka:

- Bolumenaren eta kalitatearen mailan gehiago menperatua den eskaintza bat garatzea, tokiko familiei diru aldetik helgarriagoak, zentralitateak azkartuz, eta hobeki banatuak, barnealdea bere garapenean laguntzeko, duen aniztasunean
- Egungo egunean den parkearen hobekuntza dinamika emendatzea, besteak beste energetikoki, eta balio galtzeak aitzinetik ikustea
- Denen beharrei erantzutea, elkartasuneko bizitegien bidez
- Bizitegiaren tokiko politika bideratzeko behar diren baliabideak eskuratzea eta BTParen helburuak erdiestea

BTParen epean finkatutako ekoizpen helburuak, hots 2 656 bizileku urte bakoitz, garapena menperatzeko xede honi erantzuten dio, eraikuntza orokorraren urritze arin baten bidez, 90 hamarkadako erritmora berriz heltzeko, banaketa barnealdearen alde orekatuz.

Baionako merkatua arintzeko, gibel-itsasbazterreko zentralitateak azkartzeko eta barnealdearen garapena laguntzeko xede gurutzatuak eremuen arabera bereizitako ekoizpen helburuen lurraldeko banaketara eramaten gaitu, bizitegi sozialaren zabaltzea segurtatuz, bai alokatzeen aldetik bai jabegora heltzeko bideen aldetik, ekipatuak diren guneei lehentasuna emanez.

Alokatze sozialak ekoizteko indarra segitzea da aipu, HEB legearen beharren eta helburuen intentsitatea kontuan hartuz, jabegoari helgarritasuna garatuz familien eskaerari dagozkion lurraldeetan.

Era berean, parke pribatua zaharberritzeko xedea duten urraspide berri batzuek neurrizko alokairuak dituzten bizitegi eskaintza berri bat osatuko dute, helburua 70 bizileku urte bakoitz izaten dela eta.

### Ekintza programa (III. zatia)

4 norabide estrategikoak 7 ekintza-norabidetan banatuak dira, azken horiek berriz 25 ekintzatan deklinatuak, lurraldean adierazitako beharrei ahal bezain ongi erantzuteko gisan.

BTP honen bideratzeari esleitutako aurrekontua, bana beste, 17 M€koa da urte bakoitz.

Etxegintzaren eta Bizitegiaren Kodearen **arabera**, eta besteak beste L302-1 artikulua eta ondokoak eta R302-1 eta ondokoak,

2017ko irailaren 23ko Elkargoko Kontseiluaren erabakiaren **arabera**, zeinek Bizitegien Tokiko Programa apailatzea engaiatu baitu, 2020ko otsailaren 1eko Elkargoko Kontseiluaren erabakiaren **arabera**, zeinek 2020-2025 Ipar Euskal Herriko Bizitegien Tokiko Programaren proiektua finkatu baitu,

2020ko azaroaren 9ko Euskal Hirigune Elkargoaren gutunaren **arabera**, zeinek EHE kide diren herri guzien kontseiluen iritzia eskatzen baitu finkatutako BTPari buruz, Etxegintzaren eta Bizitegiaren Kodeko R302-9 artikulua arabera,

Elkargoko lurraldean, bizitegiaren arloan, sei urteren epeko programa honetan finkatutako helburuak, norabideak eta ekintzak **kontuan hartuz**;

BTP proiektua Ipar Euskal Herriarentzat eta herriarentzat desiragarria den garapen proiektu baten alde doala **kontuan hartuz**, dituen helburu handi baina egingarrien bidez, eta denendako bizitegien zerbitzuko izaten den gizarte aniztasuna sostengatzen duela kontuan hartuz;

### Herriko Kontseiluak, lehen auzapezorde anderea entzun ondoren eta eztabaidatu ondoren, aho batez, erabakitzen du:

- 2020-2025 Ipar Euskal Herriko Bizitegien Tokiko Programaren alde iritzia agertzea;
- baimena ematea Jaun auzapezari edo Andere auzapezordeari erabaki honen gauzatzeko beharrezkoa den agiri oro izenpetzeko.

### Aho batez onetsia,

#### HERRIKO BIDEEN ERREGULARIZAZIOA - Eztenua Bidea

Lehen auzapezordeak 2010eko ekainaren 30eko erabakia oroitarazten dio biltzarrari, zeinen bidez Herriko Kontseiluak "Eztenua" etxe multzoko bidea herriko bideen sarean sarraraztea erabaki baitzuen, ikerketa publikoa egin ondoren.

Jabego transferentziaren egoera akta ez dela sekula egin izan azaltzen du eta bideen jabeek berriki proposatu diotela Herriari urririk uztea.

Bide hau katastroko C saileko 1251 zk. eta 1255 zk. sailkatua dela zehazten du, bere azalera osoa 7a45ca-koa dela, eta ETCHEMENDY, PEPEDER, BISCAR eta BIDAR ezkontideak direla jabe.

Bestalde, katastroko C saileko 1257 zk. sailkatutako lursaila herriko bideetan sartzea komeni litzateke, azalera osoa 12 ca-koa dela, jadanik herriaren jabegoan dela eta, etxe multzoak bere bidea ukan dezan.

Herriko Kontseiluari ekintza honi buruz iritzia agertzea eskatzen dio.

Auzapezaren azalpena entzun eta luzaz eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak,

**ERABAKITZEN DU** - katastroko C saileko 1251 zk. eta 1255 zk. sailkatutako lursailak, beren azalera osoa 7a45ca-koa dela, eta ETCHEMENDY, PEPEDER, BISCAR eta BIDAR ezkontideak direla jabe, urririk eskuratzea.

- "Eztenua" etxe multzoko bidea eta C 1257 herriko lursaila herriko bideen sarean sarraraztea.

KARGUA UZTEN DIO lehen auzapezordeari ekintza honen burutzeko beharrezkoa den urraspide oro eramateko, eta besteak beste, herriko bideen mapa eta taula eguneratzeko eta dagokion ziurtagiria finkatzeko.

Aho batez onetsia,

#### Obragintza hautua - helgarritasun obrak

Lehen auzapezordeak biltzarrari oroitarazten dio helgarritasun agenda bat utzia izan dela LIDZaren ondoan, ondoko eraikinetan obrak egiteko:

- Eliza
- Hilerria
- Harri Xuri gela
- Eskola
- Komuna publikoak
- Denentzat etxea
- URXURIA gela

Orain, lehenbailehen obrak abiaraztea komeni da.

Horretarako, obralari zenbait kontsultatu ditugu obren hasteko baimenak (AT), MUP planak, obren estimazioak uzteko misioa bete dezaten, baita obren segipena egiteko ere.

Horien artean, bik erantzun dute;

- GERIZA kooperatiba, 3 245 €ko zenbatekoan (zerga oro barne)
- Cécile Raymond, planak, obren estimazioak, AT txostena apailatzeko misioarentzat, 11 232 €ko zenbatekoan (zerga oro barne), TOULOUZE jaunak lagundurik obren segipena misioarentzat, 8 528,71 €ko zenbatekoan (zerga oro barne).

Herriko Kontseiluari obragintza hautuari buruz iritzia agertzea eskatzen dio.

Lehen Auzapezordearen azalpena entzun eta luzaz eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak,

ERABAKITZEN DU obragintza misioa GERIZA kooperatibari esleitzea,

KARGUA UZTEN DIO lehen auzapezordeari aurrekontua izenpetzeko eta misioa abiarazteko.

**Gehiengoz onetsia (bozka bat kontra)**

#### GAIA: ERABILPEN NUMERIKOAREN ARLOKO MUTUALIZAZIO HITZARMENA EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREKIN

2019ko apirilaren 13ko erabakiaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoak La fibre 64 sindikatu mistoarekin hitzarmen bat izenpetu du, zerbitzu numeriko programa bat hedatzeko xedearekin.

Nahi duten Hirigune Elkargokide diren herriei irekia zaie kooperazio arlo hau, ondoko zerbitzuen zati bat edo guziak eginarazteko:

- Datuak Babesteko Araudi Orokorraren arabera ezartzea (DBAO): Datuak Babesteko Araudi Orokorraren arabera ezartzeko laguntza, La Fibre 64 Sindikatu Mistoaren eta bere kideen artean mutualizatutako datuak babesteko ordezkari bat izendatuz: La Fibre 64 Sindikatu Mistoa eta bere kideak: La Fibre 64 Sindikatu Mistoa herriko datuak babesteko ordezkari izendatua da.
- Eskaera publikoaren desmaterializatzea: **Herriaren erosle profil bat sortzea** [www.eadministration64.fr](http://www.eadministration64.fr) merkatu publikoen plataforman.

- Legezkotasun kontrolera bidalketaren desmaterializatzea: Herriaren agiriak eta mugimendu desmaterializatuak bidaltzeko teletransmisio bitarte bat sortzea.

Zerbitzu numeriko horiek herrien esku urririk utziak zaizkie, urteko mutualizazio hitzarmen baten bidez, erabaki honi erantsitako proiektuaren arabera.

Azalpen horiei begira eta eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseilua gomitatua da:

- Lhusoko herriaren interesa egiaztatzea, ondoko zerbitzu numerikoei heltzeko:

Datuak Babesteko Araudi Orokorraren arabera ezartzea (DBAO).

- Jaun Auzapezari dagokion mutualizazio hitzarmena izenpetzeko baimena ematera, baita erabaki hau gauzatzeko beharrezkoa den urraspide oro ere.

**Aho batez onetsia,**

**GAIA: Engaiamendu agiri berria izenpetzea - Berregituraketarako obragintza merkatua, MUP helgarri ezartzea eta Burgu muina seguru ezartzea**

Lehen auzapezordeak oroitarazten dio biltzarrari berregituraketa obren, MUP helgarri ezartzearen eta burgu muina seguru ezartzearen estimazio berriaren ondorioz, 2020ko otsailaren 13ko ARBELBIDE eta IDEIA enprekin izenpetutako 17 550 €ko (zerga oro barne) engaiamendu agiria desgaitzea komeni dela.

Horrela, engaiamendu agiri berri bat proposatua da, 30 270 €ko prezio finkoan.

**Aho batez onetsia,**

**GAIA: LUBERRITZE EROSKETA-TALDEAREN KIDE IZATEA**

**Testuingurua:**

Luberritzeen antolaketa Luberritze Tokiko Batzordeen esku dago beren lurraldean, segurtasun baldintza ezin hobeetan.

Horretarako, batzorde horiei obren eta obragileen segurtasuna bermatzeko materiala erostearen beharra nabaritu da.

Simplifikatzeko eta ekonomiak egiteko, Pirinio Atlantikoko Laborantza Ganbarak, departamenduko luberritze eskemaren obralari gisa, bere gaitasunak erosleek zerbitzuko ezartzea nahi izan du, erosketa-talde gisa aurkeztuz babesteko materiala erosteko.

Herriko Luberritze Tokiko Batzordeak materiala hori erosteko xedea duela **kontuan hartuz**, eta bereziki 2021eko: zego 1 eta 4 kaputxa,

**Proposatua da** Lhusoko herria

Laborantza Ganbarak proposatzen duen erosketa-taldearen kide izan dadin.

**Eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluk:**

**ERABAKITZEN DU** Pirinio Atlantikoko Laborantza Ganbararen erosketa-taldearen kide izatea,

**ONARTZEN DU** Pirinio Atlantikoko Laborantza Ganbarak proposatutako hitzarmena,

**BAIMENA UZTEN DIO** Jaun Auzapezari hitzarmena izenpetzeko,

**ERABAKITZEN DU** Luberritze Tokiko Batzordeak proposatutako eskaera baieztatzea, hots zego 1 eta babesteko 4 kaputxa.

**Aho batez onetsia,**

**Testuingurua:**

2020ko azaroko 6an TXAKURRAK HeBHeSaren kide bilakatu ondoren, ordezkari tituludun bat eta ordezeko bat izendatzea komeni da.

**Eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak:**

**ERABAKITZEN DU** izendatzea:

Ordezkaritituludun: Chantal URRUTY

Ordezko ordezkari: Vincent MONGABURE

**Aho batez onetsia,**

**DM 4**

Funtzionamenduak:

6451 SFBB kotizazioak: - 593 €

6455 langileak aseguratzeako kotizazioak: 593 €

Inbestimenduak:

34. ekintza: 2315 muntadurak, materiala: - 30 000 €

33. ekintza: 2031 ikerketa gastuak: 38 760 €

33. ekintza: 2313 eraikuntzak: - 64 280 €

27. ekintza: 2031 ikerketa gastuak: 5 520 €

19. ekintza: eraikuntzak: - 10 000 €

18. ekintza: muntadurak, materiala: 50 000 €

16. ekintza: 2313 eraikuntzak: 10 000 €

**Aho batez onetsia,**

**DM 5**

Funtzionamenduak:

615221 eraikin publikoak: 4 200 €

615231 bideak: 1 000 €

6226 ordainsariak: 632 €

6451 SFBB kotizazioak: - 4 832 €

6541 Baliorik gabe utzitako hartzeak: - 1 000 €

Inbestimenduak:

33. ekintza: 2031 ikerketa gastuak: 6 100 €

33. ekintza: 2313 eraikuntzak: - 6 100 €

Luhuson egina, 2020ko abenduaren 23an

Eginbarrez,

Carole IRIART BONNECAZE Anderea

Lehen auzapezordea